

TOURRA: HAMABOSGARREN ETAPA

GURPILEAN

Mikel Astarloza ■ AG2R TALDEKO TXIRRINDULARIA



ONCEk ezin du Igorren zain egon

ONCE-Eroskiren taktikak zere-sana eman zuen atzo. Azevedorekin lasterketa bizitzen saiatu ziren, gero erritmo gogorra jarri Les Deux Alpesen eta Joseba Belokik eraso jo zuen 400 metroren faltan. Niretzat txalogarria da Manuel Saizen tal-

dearen jarrera. Tiratu egin dute, arriskatu egin dute eta hori eskertzekoa da. Ahalegintzen ez badira nekez jakingo dute Lance Armstrongek eutsiko dion. Denok dakigu hori gertatzea zaila dela, baina estatubatuarra behartu gabe ezin jakin kale egingo duen ala ez.

Taktika erasokor horrek Igor Gonzalez de Galdeanoren larritasuna azalerratu zuen, baina ONCE-Eroskik ezin du Igorren zain egon gasteiztarak podiuma ziurtatzeko bidean. Justu doana atzean geratzen da, mendate batean ez bada hurrengoan.

Itxuraz zozo samarra izan zen etapa, baina nik kontrako iritzia dut. Ihesaldi bat egon zen, azken mendatean Unai Osa, Sastre, Mancebo, Heras eta Beloki mugitu ziren... Ezin da askoz gehiago eskatu. Onenek arriskatzeko joera gutxi dute, lortutakoa erraz gal daitekeelako eta normala da jende indartsuenak era-

sorik ez egitea urrundik. Ezin dira erakustaldiak egin eta gaur ere, zoritxarrez, antzeko zerbait gertatuko da ziurrenik. Sailkapen nagusiko lehen 10 postuetan daudenak ez dira asko mugituko.

Santiago Boteroren garaipena ere nabarmentzekoa da. Irregularra da oso kolonbiarra. Egun batean sekulako txakalaldia (Mont-Ventoux) eta hurrengoan etapa garaipena. Gaur ordu erdia galduko du agian, edo etapa irabazi, ez harritu. Atzo gertatu moduan, ihesaldi bat sortuko dela uste dut. Bertan izango da, ia ziur, Laurent Jalabert.

Botero: «Ziklismoak zerikusi gutxi du matematikarekin»

Atzoko ihesaldia «erlojupekotzat» hartu zuela azaldu zuen helmugan Kelmeko kolonbiarrak

Erredakzioa | DONOSTIA

Txirrindulari gutxi dute Santiago Boterok aurten lortu duena egiteko gaitasuna. Kolonbiarrak lehen erlojupeko luzea irabazi zion Armstrongi, eta atzo mendiko etapa gogorra bereganatu zuen, Alpeetan. Kelmekoari erregulartasuna falta zaio podiumeko lehian sartzeko, baina atzo, akaso, hori lagungarria izan zitzaion, Mont Ventouxen galdutako denborari esker jada ez baita gizon arriskutsua. «Mont Ventouxen 15 minutu inguru galdu nituen, eta postu asko egin nituen atzera sailkapen nagusian. Etapa garaipena bilatzea baino ez zitzaidan gelditzen jada», azaldu zuen Boterok. Hasieratik garbi zuen ihesaldi batean sartzen saiatuko zela: «Lehen mendatea 60 kilometrorra zegoen. Banekien ez zela erraza izango aurrera egitea. Bizpahiru aldiz saiatu nintzen, Sorensenekin lehenik, Aertsekin gero, eta azkenean lortu genuen ihesaldia antolatzea».

Erlojupekoan eta atzo mendian erakutsitako indarrarekin, batzuentzat zaila da ulertzen Boterok sailkapen nagusian duen atzerapena, baina kolonbiarrak badu horretarako erantzuna: «Ziklismoak zerikusi gutxi du matematikarekin. Frantziako Tourra irabaztea oso zaila da. Baina bi etapa irabaztea niretzat garrantzitsuagoa da Parisen sailkapen nagusian laugarren edo bosgarren izatea baino».

Datozen egunotan beste etapa garaipen bat lortzen saiatuko den ez du oraindik garbi. «Egoera ezberdina izango da», azaldu du, «sailkapen nagusian



MONDELO / EFE

Santiago Botero, Les Deux Alpesen maldetan gora, ahalegin batean.

aurrera egin baitut, eta ez didate aukera handirik emango. Vicente Belda zuzendariarekin hitz egin behar dut hemendik aurrera hartu beharreko jarrera zehazteko».

Bigarren etapa «emazteari eta Bogotako jendeari» eskaini

SANTIAGO BOTERO

Kelmeko txirrindularia

«Bi etapa irabaztea garrantzitsuagoa da Parisen laugarren edo bosgarren izatea baino»

zion. «Bigarren garaipena ezberdina da beti. Erlojupekoa irabazi nuenean autobusean sartu nintzen Vicente Beldarekin, eta Kolonbiak Munduko Txapelketan gola sartu izan balu bezala egin nuen oihu, ikaragarria izan zen».

ERREAKZIOAK

JOSEBA BELOKI (ONCE-Eroskiko txirrindularia)

«Indar guztiak agortu zaizkit, eta orain bigarren postuari eustea dut helburu»

«Ahal izan dudan guztia egin dut Lance Armstrongi aurre egiteko, eta indar guztiak agortu zaizkit. Orain bigarren postuari eustea dut helburu. Minduta nago, Armstrongi aurre egitea ezinezkoa dela ikusi dudalako baina, aldi berean, pozik, bigarren postua lortzeko moduan naizelako. Taldean bigarren eta laugarren postuak ditugu, eta horiek defenditzen ahaleginduko gara. Gaurko azken igoera ez zen gogorregia, eta ez zuen mezei urrutitik eraso jotzea. Zertarako? Indarrak alferrik galtzea baino ez genuen lortuko eta biharko etapa —gaurkoa— oso gogorra da. Eraso jo dudanean normala iruditu zait Armstrong nire bila atera eta gurpilean jartzea, nik ere berdina egingo nukeen».

CARLOS SASTRE (CSC Tiscali taldeko txirrindularia)

«Moreauk barkamena eskatu zidan aurreko batean, baina horrekin ez da ezer konpontzen»

«Christophe Moreauk gaur —atzo— izan duen erorikoa ikusi dut. Azkenean lasterketa utzi egin behar izan du. Lehengoan izan genuen arazoa ahazten saiatu naiz. Berak barkamena eskatu zidan aurreko batean, baina horrekin ez da ezer konpontzen, niri 20 segundoko zigorra jarri baitzidaten, inolako errurik izan gabe. Etapari dagokionez, Armstrongen taldeak ihesaldia baimendu du, Botero bertan izanda beste batzuk lan egingo zutelakoan, baina ez da hala gertatu, eta azkenean iheslariak iritsi dira aurretik».